

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA

EPAITEGIETAN:

EKIMENAK ETA EMAITZAK

Miren Ortiz Olabe

Lan honetan epaitegietan euskarak duen egoera aztertuko dugu, hizkuntzaren normalizazio prozesuaren testuinguruan. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko bultzatu diren ekimenak ardatz izanik, hizkuntzaren egungo egoera landuko dugu. Ekimen hauek izan dituzten emaitzetatik ondorioak aterako ditugu, izan diren lorpenak zein porrotak bereiziz, eta etorkizunerako igurikimenak azalduz. Horretarako, Justizia Administrazioan euskarak dituen zailtasunen iturburuak agertuko ditugu, giza baliabideak, legeak eta materialak banan-banan ikertuz.

1. Sarrera

2010ean, Unesco erakundeak berriro sartu du euskara desagertzeko arriskuan dauden 2.500 hizkuntzen zerrendan. Bere tokia hobetu duen arren, ahultasun egoeran dago oraindik. Euskarak, gaur egun, 1.234.000 hiztun inguru ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan, Iparraldean eta Nafarroan zehar desorekaz banaturik.

Horietatik, soilik 775.000 dira egokitasunez mintzatzeko gaitasuna dutenak. Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ofiziala da gaztelarekin batera, 1982ko Legearen ondorioz. Nafarroan, aldiz, euskararen ofizialtasuna partziala da, hiru erregimenen arabera: iparraldeko eremuan (hau da, foru erkidegoaren populazioaren %10a bizi den gunean) ofiziala da; erdialdeko eremu mistoan ez da ofiziala, baina herritarrei eskubide batzuk aitortzen zaizkie hizkuntzaren inguruan; azkenik, erdialdean eta hegoaldean gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra (ondorioz, administrazioan, eskola publikoetan... exijitu daitekeen bakarra). Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskarari ez zaio ofizialtasunik aitortzen.

Beraz, euskarak oso estatus eta egoera soziolinguistiko ezberdinak ditu lurraldearen eta administrazio-barrutiaren arabera. Aldeak are nabarmenagoak dira Justizia Administrazioaren alorrean; izan ere, euskarak bakar bakarrik du tokiren bat aitortua EAEko epaitegietan, eta jarraian ikusiko dugunez, hor ere oraindik oso mugatua da irabazi duen esparrua.

2. Euskara epaitegietan

2.1. Hizkuntzaren erabilera

Justiziaren administrazioa kontsideratu dezakegu Zuzenbidezko Estatu demokratiko eta sozial baten adierazgarri garrantzitsuenetariko bat, hiritarren eskubideak zein askatasunak babestu, bermatu eta berrezartzeko baliabide den heinean. Pertsona bakoitzak epaile eta auzitegien aurrean bere burua defendatzeko aukera dauka, eta hori aurrera eramateko, bere mintzatzeko eta ulertzeko gaitasunak erabili ahal izatea funtsezkoa izango zaio, epaiketa justu baten eskubidea aitortzen zaiolako. Jakina da edonor erosoago sentitzen dela egunero darabilen hizkuntzan, beste batean baino; eta are garrantzitsuagoa izan daiteke hori, egoera larri batean, epaiketa batean adibidez. Beste hizkuntza batean aritu beharrak kaltegarri izan dakioke pertsonari bere eskubideen defentsan eta egikaritzan, zailtasunak izango baititu epaileek diotena ulertzeko edo adierazi nahi duena azaltzeko. Beraz, epaile eta auzitegien aurrean bakoitzak ondo menderatzen duen hizkuntza erabili ahal izatea oinarrizko eskubideak egikaritu ahal izateko ezinbesteko ukanbeharra da.

Epaitegietan, Auzitegietan eta horiekin loturiko egitura guztietan, eta egitura horietako maila eta bulegoetan zaila da oraindik euskara egokitasunez darabilten langileak aurkitzea Justizia Administrazioaren funtzionarioen artean gutxi dira hizkuntzan ondo moldatzen direnak. Euskara ezagutzen dutenak, aldiz, gero eta gehiago dira; baina, hala ere, euskaraz lan egiteko zailtasunak dituzte askok, hizkera juridikoa menderatzen ez dutelako. Izan ere, Justizia Administrazioan erabiltzen den hizkera ez da kalekoa; oso teknikoa da eta terminologia bereziaz hornitua dator. Ondorioz, alor honetan aritzeko ez da nahikoa euskaraz hitz egiteko gai izatea; gainera, zientzia juridikoari lotutako terminologia eta adierazpideak ere ondo ezagutu behar dira.

Epaile, magistratu eta idazkarien kasuan egoera are larriagoa da; izan ere, gutxi erabiltzen edo ulertzen dute oraindik euskara. Gainera, euren lanen garrantziak galdatzen du hizkuntzaren ezagutze sakona eta osoa, ulermenarekin erlazionatutako arazo edo nahasketarik ez gertatzeko (horrek ekarriko lituzken ondorio larriak kontutan harturik: frogak gaizki kontsideratzea, argumentuak ondo ez ulertzea...).

Giza baliabideak alde batera utzita, ezin dugu ahaztu Justizia Administrazioak sortzen dituen agiri judizialak. Horiek ere euskaraz egotea normalizazioaren funtsezko beste baldintza da, hizkuntza honetan aritzen diren demandatu, demandatzaile, abokatu, funtzionario zein epaileek erabili ahal izan ditzaten. Agiri judizialekin dagoen arazoa da oso luzeak izaten direla, eta, beraz, itzultzen oso astunak, besteak beste, lan terminologiko handia eskatzen dutelako. Hala ere, alor honetan izan da aurrerapenik nabarmenena.

Honekin lotuta, Lege, Dekretu eta beste ezarpenak ditugu, normalean itzultzen ez direnak, euskararen normalizazioari ere oztupoak jartzen baitizkiote. Normalizazioa sendotzeko zuzenbidearen oinarria osatzen duten lege eta testuak euskaratu egin behar dira, profesionalek horien gainean lan egin ahal izateko. Itzulpengintzak arazoak sortzen ditu oraindik, batzuetan bere maila nahiko eskasa baita (adibidez, gertatu izan da gaztelerazko eta euskarazko bertsioak baliokideak ez izatea, termino batzuk gaizki itzuli direlako), eta egunero argitaratzen direlako itzuli behar diren legeak, erregelamenduak eta bestelakoak.

2.2. Ekimenak

Aipatutako arazoak gainditzeko, euskararen normalkuntzaren bidean, hainbat ekimen izan dira zenbait alorretan: legegintzan, euskalduntzean, itzulpengintzan, materialen sorkuntzan... Ikus ditzagun aipagarrienak.

2.2.1. Legegintzaren alorrean

Euskararen erabileraren normalizazioa lortzeko helburuarekin Euskal Autonomia Erkidegoak 10/1982 Legea onartu zuen. Lege honen 9.artikuluari aitortzen zitzaizkien lurraldeko hiritarrei Justizia Administrazioarekin zituzten harremanetan euskaraz aritzeko eskubidea, itzulpenik exijitu ezin zitzaizkiolarik; euskaraz aurkeztutako idatzi eta dokumentuei ere balio osoa ematen zien artikulu honek, eta Euskal Gobernuak lotzen zuen Justizia Administrazioan euskararen normalkuntza sustatzera. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak garai horretan ez zuen justiziaren arloko funtzionarioen eta baliabide materialen eskumena, beraz, lege horren edukia egikaritzeko aukerak urriak ziren.

1996. urtean jaso zuen aipatutako eskuduntza, eta une horretan abiatzen dira bete-betean euskara alor honetan normalizatzeko ekimenak. 117/2001 Dekretuak, bere aldetik, Justizia Administrazioaren zerbitzura jarduten diren funtzionarioen hizkuntza eskakizunak arautzen ditu, eta azken hau kontutan harturik, pertsonalaren euskara ezagutzak hobetzeko ikastaroak antolatzen ditu. Dena den, dekretu honek aurreikusten du egoera batzuetan euskara eskakizun bat izango dela, eta beste batzuetan, aldiz, merezimendu soila.

2010ean, Eusko Jaurlaritzak Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizazioarako dekretu berria onetsi du, 2008koa indargabetzen duena. Testuak bost urterako plana ezartzen du honako helburua lortzeko: Justizia Administrazioaren barneko hizkuntzak berezitateko %35 lanpostu izateko, euskararen benetako ezarpenaren arabera, barruti judizialean proportzionalki banatuta. Beraz, bi lanpostu mota aurreikusten dira: generikoak, zeinetan euskararen ezagutza meritu gisa baloratuko den; eta berezituak, zeinetan euskara derrigorrezkoa izango den.

Nafarroari dagokienez, ekimen gutxi izan dira eta balio eskasekoak. Kontutan harturik euskara koofiziala dela soilik iparraldeko eremu txiki batean, hizkuntzari gainditu ezin diren mugak jartzen zaizkio Foru Erkidegoan hasieratik. Euskarabidea da Administrazioan euskara sustatzeko Nafar Gobernuak sortu zuen Institutua, eta honek eskaintzen dituen baliabideak dira aipagarrienak, euskarabidea.es web-orrian. Justiziaren alorrean, ordea, euskarak ez du oraindik berariazko aitortzarik Foru Erkidegoan.

2.2.2. Euskalduntzeare alorrean

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, euskalduntzearen alorreko ekimen gehienak erakunde publikoek sustatu dituzte. Funtzionarioentzat, epaileentzat, fiskalentzat zein idazkari judizialentzat euskarazko ikastaroan antolatzen dituzte aspaldi, HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) eta IVAP-HAEEk (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen) elkarlanean.

Baina, Abokatuen Elkargoek eta beste erakunde pribatu batzuek ere (UZEIk, adibidez) lan handia egin dute alor honetan. Elkarrekin hauek epaitegietatik kanpoko profesionali begira egin dute lan eta ikastaroak eta baliabideak prestatu dituzte abokatuentzat, notarioentzat, erregistratzaileentzat, aholkulari juridikoentzat...

Ezin aipatu gabe utzi unibertsitateen ekarpena, bereziki, Euskal Herriko Unibertsitatearena. Aspaldi eskaintzen dute zuzenbide-ikasketak ia osorik (EHUn) edota parte batean (Deustuko Unibertsitatean) euskaraz egiteko aukera. Unibertsitateen prestakuntzalanari esker, ehunka dira azken 30 urteotan prestatutako irakasle eta profesional juridikoak.

2.2.2. Itzulpengintza

Euskal Autonomia Erkidegoan, zerbitzu bat dago martxan auzitegietan euskarazko itzulpenak egiteko: Bizkaian eta Gipuzkoan launa itzultzaile daude, Araban beste bat. Behar denean, kanpoko enpresen lankidetzaren baliabideak ere erabiltzen dira epaitegietako itzultzaileen lana arintzeko. Ildo horretatik, aurrerapauso nabarmena eman da aurrean bertan euskarazko Zinpeko Itzultzaileen akreditazio-sistema abiatzearekin, akreditazio-sistema honek arautu egiten baititu auzitegietako eta beste instantzia ofizialetako zinpeko itzulpenak egingo dituzten profesionalak bete beharreko baldintzak, itzulpen horiek lege-berme osoa izan dezaten.

Honetaz aparte, Justizia Administrazioan erabiltzen diren agiri judizialak itzultzeko ereduak ere normalizatu egin dira. Helburu horrekin sortu zen, hain zuzen ere, Justizia Saileko Euskara Batzordea. Batzorde honek itzulpen sistema bat jarri zuen abian 2006an, itzulpen memoriaren erabileran oinarritutakoa. Honek ikaragarri erraztu du funtzionarioen lana (datuak behin sartzearekin eredu elebidunak eratzea posible egiten zuelako). Sistema hau Justizia Batzordearen aplikazio informatikoan integratu da, eta ezarri den tokietan lortu dituen emaitzak nabarmentzekoak izan dira.

1999-2000 bitartean, euskara juridikoaren normalizaziorako bidean lehen esperientziak eraman ziren aurrera organo judizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia

Administrazioko itzultzaileen laguntzaz. Dokumentuak euskaratu eta zenbait tramite elebitan jartzea izan ziren ekintza nagusienak. Aipaturiko 2001eko Dekretuaren ostean, Justizia Administrazioaren ezaugarriak kontutan hartu ziren euskararen erabilera sustatzeko politikaren barnean.

Itzulpengintzari dagokionez, ezin ditugu ahaztu UZEI Terminologia eta Lexikografia zentroa, eta Euskal Herriko Unibertsitateak zein Deustuko Unibertsitateak aurrera eraman duten itzulpengintza lanak.

2.2.3. Material juridikoen garapenaren alorra

Material juridikoei dagokionez, internet dugu euskararen normalizazioan oso baliagarri den baliabidea. Aipagarri dugu Epainet aplikazioa, epaitegi tradizionaletan eta bake epaitegietan Eusko Jaurlaritzak aurrera eraman zuen ekimena, epaitegietako pertsonalak euskararen erabileran zituen arazoak kontutan hartuz. Aplikazioak 300 agiri judizial inguruko corpus normalizatua du, funtzionarioen lana ikaragarri errazten duelarik, eta ondorioz, euskara juridiko eta idatziaren erabilera indartuz.

Inforeg erregistro zibilean erabiltzen den aplikazioa da, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak itzultakoa. Honi esker, Barruti Judizialeko Buru diren herrietako erregistro zibiletan posible izanen da inskripzioak euskaraz egitea zein ziurtagiriak euskara hutsez eskatzea. Dena den, aplikazio hau ez da hedatu Bake Epaitegietara. Egun, ordea, Eusko Jaurlaritzak Inforeg aplikazioa Erregistro Zibil guztietara zabaltzeko intentzioa adierazi du.

Zuzenbide Zibilaren esparruan, Justizia eta Herri Administrazioako Sailak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak (ZEA) eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (HAEE) abian jarri dituzte bi baliabide: forulege.com kontsultarako web-orria, eta iusplaza.com, informazio juridikoz hornitutako web-a.

Modu berean, ezin ditugu ahaztu euskara juridikoa hobetzeko, egokitasunez nola erabili ikasteko edota hitzen gaztelerazko baliokideak aurkitzeko internet bidez eskuragarriak ditugun beste material batzuk. Alde batetik, hiztegiak, bilatzaileak eta mota honetako materialak ditugu eskuragarri (Euskalterm, Lexikoaren Behatokiaren Korpusa...), eta bestetik, euskara zein euskara juridikoa ikasteko eta lantzeko baliabide ezin hobea da, adibidez, ikastaroak egin ahal izateko.

2.3. Ekimenen emaitzak

JustiziaBat aplikazio informatikoak lortu dituen emaitzak dira aipagarrienak: Donostian lehen auzialdiko epaitegietan agiri elebidunen kopuruak gora egin du lehen urtean, %7 batetik

%49ra; Gasteizko lan arloan oraindik ere garrantzitsuagoa izan da lorpena: %16tik %79ra igo dira agiri elebidunak.

Euskaraz jarduteko gai diren funtzionarioen datuak oso onuragarriak izan ez arren, gora doazela nabarmendu behar da: Bizkaian eta Araban %15etik gertu daude, Gipuzkoan %20a errez pasatu duten bitartean. Eraitza eskas hauen arrazoi garrantzitsuenetakoa da Justizia Administrazioan lan egiten duten profesionalen interes edo motibazio falta, gehienbat epaile, magistratu, fiskal eta idazkarien artean. 2006an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Departamentuak argitara emandako datuen arabera ikusi dezakegu hau. 1999an, euskaraz ikustaldi bat eramateko gai ziren epaileak 13 ziren, 180 epaileetatik (%7'2). 2006an, maila berdinean edo okerragoan aurkitzen zen euskara. 2006an, soilik 33 epailek (208tatik), 10 fiskalek (80 dira guztira) eta 47 idazkari judizialek (167 direlarik) eskatu dituzte euskara ikastaroak. Bake epaileei dagokienez, interesa oraindik ere murriztagoa da, 237tatik soilik 13k eskatu baitituzte ikastaroak. Gainera, ikastaroetan jarduten direnak euskara maila oso baxua ikasten dabilta, euren lanbideetan euskaraz aritzeko galdatzen den nibeletik oso urrun. Ahaztu gabe Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egin zuen galdeketa bat: Euskal Autonomia Erkidegora destinatuak izan ziren epaileen %40ak adierazten zuen euskaraz noizbait bere lanerako "arazo" bat suposatu duela.

Euskara ikasteko, beraz, ahalegin mugatua egin dute oraingoz Justizia Administrazioarako Langileek. Zailtasunak direla medio (euskarak ez duelako zerikusirik gaztelaniarekin, beste jatorriko hizkuntza den heinean, ez katalana edo valentziarra bezala), denbora faltagatik (agian ez dira ondo antolatzen lan-orduak eta ikasteko orduak) edo euskararen arrisku egoeraren kontzientzia faltagatik.

Gainera, botere publikoak euskara normalizatzeko ahaleginetan Auzitegi Konstituzionalaren mugarekin egiten dute topo, honek gaztelaniaren lehentasuna aldarrikatzen baitu. Adibidez, epaiketa bat dagoenean, euskaraz egitekotan, alderdiek adostu behar dute; batek, aldiz, gaztelaraz egin nahi badu, hizkuntza horretan burutuko da epaiketa. Euskararen normalizazioarako 10/1982 Legean, aurreikusten zen akordiorik egon ezean prozedura martxan jarri zuenak hautatuko zuela hizkuntza, baina Auzitegi Konstituzionalak artikulatu batzuk konstituzioren aurkakoak zirela deklaratu zuen, hauek ezabatuz. Horrelako adibide asko gertatu izan dira.

3. Ondorioak

Laburbilduz, euskara urrun dago oraindik benetako normalizazio-egoeratik; are urrunago, Justizia Administrazioaren esparruan. Eraitzen adierazten dutenaren arabera, gaur egun arte hizkuntzaren erabilera sustatzeko martxan jarri diren politikak eta ekimenak ez dira nahikoak izan, edo ez dira egokitu euskararen beharretara. Horrek oinarritzko eskubideen

urratze sistematikoa ekarri du: euskaldunek etengabe aurkitzen dituzte euskaraz jarduteko zailtasun eta oztopoak, eskubide eta askatasunak egikaritzeko oinarri-oinarrizkoak diren eremuetan, Justizia Administrazioan kasu.

Botere publikoek aurrera eramaten dituzten ekimenek, askotan, jada euskaraz mintzo direnei gutxieneko zerbitzu batzuk bermatzeko helburua dute, eta bide horretatik ez da askorik egin aurrera: euskarak behar duena da bere tokia eskuratzea, mendeetan zehar (milurtekoetan zehar ere!) jasan dituen diskriminazio eta jazarpenak gaindituta. Babestua izaterik behar ez duen eta ikaragarri boteretsua den hizkuntza bati lehentasuna ematen bazaio, euskara bezalako hizkuntza txiki eta gutxituari ezin zaio inolako berdintasunik bermatu. Gazteleraren itzalak gure *lingua navarrorum* itotzera helduko ote den galdetzeak ez du zentzurik, euskarak beti eutsi diolako bere existentziari, egoera zailenetan ere. Baina euskarak ez du iraun lanik gabe: bere hiztunek mantendu dute, ahaztu gabe euskara ikasi edo erabili ezin izan duten pertsona horiek ere, geroago berreskuratu arte gelditu ez direnak.

Guztion artean euskararen normalizazioa lortu dezakegu, eta horren barnean, Justizia Administrazioan erabiltzea ere: profesionalengan interesa piztuz, kontzientzia sortuz, baliabide materialak itzuliz, arauak eta agiri judizialak euskaratuz, esfortzua eginez. Finkatutako helburua lortzetik urrun gaude, baina zailena egin dugu: oinarriak jartzea.

Bibliografia:

Legeak eta beste arauak:

http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/pv-l10-1982.t2.html#c1

[http://www.euskadi.net/cgi-](http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver_e?CMD=VERDOC&BASE=Bo3D&DOCN=000034580&CONF=/config/k54/bopy_e.cnf)

[bin_k54/ver_e?CMD=VERDOC&BASE=Bo3D&DOCN=000034580&CONF=/config/k54/bopy_e.cnf](http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver_e?CMD=VERDOC&BASE=Bo3D&DOCN=000034580&CONF=/config/k54/bopy_e.cnf)

http://www9.euskadi.net/euskara_araubidea/Legedia/legeak/gaztelan/autonomi/lg82b10.pdf

Berriak:

<http://www.noticiasdenavarra.com/2010/12/10/sociedad/navarra/la-unesco-mantiene-al-euskera-como-lengua-en-peligro-y-alerta-sobre-su-vulnerabilidad>

http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/uso/euskera/tribunales/vascos/ha/retrocedido/ultimos/anos/elpepiau/pvs/20060801elpvas_2/Tes

Informazioa:

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1254150419

<http://www.erabili.com/plangintzak/gurien/1237288993>

<http://www.soziolinguistika.org/fr/node/2057>

<http://www.avd-zea.com/descargas/articulos/206.pdf>

<http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/euskararen-kalitatea/erabilera-komunikatiboa/>

http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2010/11/clip_image002.gif

http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contgral/eu/contenidos/boletin_revista/zuzen_03_09/eu_boletin/justicia.html

http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contgral/eu/contenidos/boletin_revista/zuzen_04_10/eu_boletin/justicia.html

http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contgral/eu/contenidos/boletin_revista/zuzen_05_10/eu_boletin/justicia.html

http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2010/eu_jar2010/adjuntos/LI_BURUAehuei10-08.pdf

<http://www.euskarabidea.es/espanol/noticias/administrazioan-euskaraz-ere-bai>